

Gure garaiaren questioa

Luther Blissett, *Q*. (Mondadori, 1999). 753 orrialde.


Apaletan paper berriak izango dituzu, joan den astean erosiak, sortzekoak diren hautsen ohatze zuri. Ez da zentzuzkoena 800 orrialde inguruko liburukote bat hona ekartzea, noiz eta Durangoko Azokaren biharamun buruminezkoan. Ausarta –ergela– XVI. mendean girotutako nobela italiar hau gomendatzera –edo ez– datorkizun hau, kasu egin eta irakurriko duzulakoan, erosi gabe bada ere.

Dena da pixka bat arraroa, pixka bat diferentea eta pixka bat azaldu beharrekoa Luther Blissetten *Q*-n. Egilea, hasteko: izena aditu eta futbolsofian katedradunari A.C. Milan taldean 1980ko hamarkadan jokatu zuen aurrelari jamaikarra etorri zaio burura. Formateatu diskoa. *Nom de plume* bat duzu Luther Blissett, pseudonimo bat, atzean egile kolektiboa gordetzen duena. Europa osoko kultur ekintzaileek erabili izan dute deitura hori. *Q* nobela mugimendu horretako lau kide bolognarren fruitua da, 1999an argitarata emana.

12 hizkuntzatarata itzuli dute *Q*, –“etxeko” erdaretara ere bai– eta kritikariek Umberto Ecoren *Arrosaren izenarekin* alderatu dute. Konparazioak gorrotagarriak dira, zer esanik ez horrelakoak, baina nobela honi merituren bat aitortu behar zaio. Bat, irakurterraza izanda ez dela modan daudden eleberri historikoen txikle bideetatik abiatzen.

Argumentua dugu beste puntu indartsua; istorioa egungo Alemanian lurrean abiatzen da, Luterok hasitako Erreforma bururaino eraman nahi duten anabaptisten altxamenduarekin. Protagonista behin eta berriro ibiliko da ihesean, Erromako Giovanni Pietro Carafa kardinalaren aginduetara dabilen *Q* izeneko espioiaren hatsa lepazurrean. XVI. mendeko erlijio gatazken irakurketa marxista –edo– eskaintzen du nobelak; gaur egungo Europaren alegoria izan nahi du istorioak. Anabaptismoa 1960 eta 70eko hamarkadetako mugimendu ezkertiarren pareko azaltzen da. European derrigorrez ezkutuan ibili behar du protagonistak eta azkenerako Otomandar Inperioan aurkituko du sosegua.

Gure garaien ispilu: ezkerretik idatzitako istorio onak ere ez dira boterearen jazarpena salatzen harago joaten. Ez dago alternatibarik, bizirautea baizik. Ispilu hautsiak, inondik ere: Mondadori argitaletxeak zabaldu dizu mundura liburua, Marina Berlusconi –esan behar al du noren alaba den?– kontrolpean duen argitaletxeak.



GORKA BEREZIARTUA

produktu berria



ARMIX
BASO MAGIKOAN

PC CD-ROM

5-8 urte bitartekoentzat

CD-ROM bideo-jokoa

24,95 €

Erosteke:
www.elhuyar.org/denda
helbidean eta
ohiko salmenta-puntuetan

Elhuyar Fundazioa
Zelai Haundi, 3. Osinalde Industrialdea
20.170 Usurbil - tel.: 943 363 040
elhuyar@elhuyar.com - www.elhuyar.org/denda



Elhuyar
FUNDAZIOA

liburuak • hitzegiriak • aldizkariak
• multimedia CD-ROMak • ikus-entzuzkoak • filmak • irudiak